

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

350n. zenbakia

2009 ekaiña



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

Euskalerrian euskeraz

E U S K E R A Z A L E A K

2009-2010 IKASTURTEA

BIZKAIERA 42. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA
EGUENETAN

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2 - urrutizkiña 94 423 53 22 - Bilbao

Asierea: Urrillaren 13'an

42.º Curso de Euskera Bizkaino 3 niveles y conversación

Días: Lunes, Miércoles y viernes, o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de larreategi, 14-2 - Teléfono 94 423 53 22 - Bilbao

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 25 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

URTERO`ko EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN BATZAR NAGUSIA

Bi milla eta bederatzi`garren urtean Epaila`ren 26`an arratsaldeko zazpiterdiak zirala, Euskerazaleak Alkartearen Zuzendari Batzordeak, aurretiaz deia eginda, Batzar Nagusia egin eban.

Bilbao`n, Kolon de Larreategi kale`ko 14`n zenbakian, 2`gn solairuan dagon Euskerazaleak Alkartearen giza-etxean.

Batzar onetara, aitatzten diran batzarkideak batu ziran:

Barroeta ta Amorrortu`tar Klaudio.

Fernandez ta Ruiz de Eskide`tar Karmele.

Agirre ta Fullaondo`tar Biktori.

Uriarte ta Euba`tar Ana.

Egurrola ta Madariaga`tar Iñaki.

Basañez ta Billelabeitia`tar Eloie.

Regidor ta Unzueta`tar Kontxi.

Alonso ta Iriondo`tar Margari.

Mentxaka`tar Maritxu.

Barrutia`tar Eneko

Barrutia ta Kalera`tar Kontxita.

Atutxa ta Agirre`tar Paul.



AURKEZPENA:

Leenengo, batzarrari asiera emoteko, Atutxa`tar Paul`ek, Barroeta`tar Klaudio Euskerazaleen alkarteko lendakari-lez aurkeztu eban, eta onek adierazi eban batzarraren antolakuntza zelango baldintzatan egingo gendun. Ondoren, zutunik abestu euskun emen agertzen dan bertsoa:

Arrastion danori
ondo etorriak,
jakintza zariela,
euskerazaleak,
txorrioka euskeraz,
dodaz nik entzunak,
au poza, egi balitz,
laukela euskerak !

1`go .- IDAZKARIA

Atutxa idazkariak, aurreko Batzar-Nagusia`ren agiria

irakurri eban eta ontzat artu zan.

Alonso ta Iriondo`tar Margari`k berbea eskatu-ta, erregu-lez eskatu

eban, gazteleraz ia laburpen bat al geinken, batzuk ez ebela euskeraz

gutziz ulertzen eta Uriarte`tar Ana`k itzulpen labur bat egin eban.

Ortik aurrera izkuntz bietan osotu gendun batzarra.

2`gn .- 2.008`ko DIRU KONTUA

Karme le arduradunak auxe esan euskun:

Aurten be, betiko era-berean etxeko kontuak emongo dautsuedaz:

Esan bear dautsuegu, urte onetarako dirua daukagula, arazo`en bat geiago sortzen ez ba-jaku, nai-ta aurten arazo gogorra agertu:

Pisu guztietan ura sartu da eta orregaitik, tellatu, uren berakadak, eta ez dakit zer geiago barriztu bear dira.

Lan orreik, oraindiño ez dakigu zenbat izango diran, baiña gure solairua`gaitik 6.000 euro gitxi gora-bera ordaindu bear ko doguz.

Gure aldetik urtero lez, Udala eta Foru-Aldundia`ri diru laguntza eskatu dautsegu, ez konponketa orreik egiteko, danak gure Alkartearen lan-ekin-tzak aurrera eroateko.

Aurten, igaz`ko antzera dirua emoten ba-dabe: "Egutegia. Ikasturtea. Ipuin Sariketa. Web Orria. Euskal Astea eta beste ekintza batzuk egingo dira.

Ekintza orreik egiteko, guk betiko-lez %`ko 40`a ordaindu bear dogu.

Aurten-be, Bilbao`n ez dogu izan diru-biltzaille edo eske-batzaillerik eta orregaitik artzen dogun dirua, BBK`ra bialtzen dabenak eta idaz-gelan ordaintzen dabenak bakarrik artzen dogu.

Etxeko lan orrekaitik, datorren urterako diru gitxiago geratuko jaku, baiña aurtengorako ez daukagu ezeren arazorik.



Beste alde batetik, BBK´k iragarkia kendu dausku, eta orregaitik, urte onetan 2.000 euro gitxiago artuko doguz.

Euskerazaintzaren aldetik, etxea berak-be erabilten daualako, ordainketak erdi-banatuta ordezkatu doguz, aukera orretatik, diruaren sarrera barri-bat daukagula.

Beste barik, datorren urterarte.

DIRUZAINZAREN ARDURADUNA

Fernandez ta Eskide´tar Karmele



3gn .- URTE´ko EKINTZA´ren AZALPENA

Arlo onen azalpena, Barroeta´tar Klaudio´k adierazi eban lendakari-lez.

EUSKERAZALEAK ALKARTEA

2.008`n URTEKO EKINTZAK

(Batzar Nagusiko Itzaldia)

Adiskideok:

Urte guztietan lez, Batzar-Nagusi onetan, urte barruan egin doguzan lanen barria emoten dogu.

1 .-ILLEROKO BATZARRAK eta URTEROKOA:

Utsik egin barik bete dogu illeroko batzarra eta urterokoa egiteko zeregiña. Atutxa´tar Paul´ek gure bazkideak idatzita BATZAR AGIRIETAN ikusi daiteken lez.

2 .-IPUIN-SARIKETA:

Urte guztietan lez eginda, Bilbao´ko Udala´ren laguntza eta babesagaz, oneik izan dira aurtengo sarituak:

1`go SARIA: Murua ta Goñi´tar Jose Mari

2`gn SARIA: Arrien´tar Ziortza.

3`gn SARIA: Legarreta´tar Asier

4`gn SARIA: Merino´tar Palmi.

5`gn SARIA: Lopez´tar Kontxa.

3 .- EUSKAL ASTEA:

Euskeraren Astea be ospatu dogu Zemendia´ren 24n. egunetik ogeitazortzi´garrenera:

24- Astelenean Atutxa´tar Paul´ek azaldu eban bere IZADIA-ZAINDU´aren

lenengo zatia.

25- Martitzenean, Uriarte´tar Ana´k egin eban Emekueei buruz bere lenengo

ekiñaldia.

26- Eguastenean, Atutxa´tar Paul´ek, bere IZADIA-ZAINDU´aren bigarren

zatia.

27- Eguenean, Legarreta´tar Asier´ek bertsolaritzaren buruz azaldu eban.

28- Barikua´n, Uriarte´tar Ana´k, bere bigarren berbaldia.

4 .- EGUTEGI-TAKOA:

Bizkai´ko Foru-Aldundia´ren laguntzari esker, argitaratu dogu, Jaunaren Deia, edo Mensajero del Corazòn de Jesus, josu-lagunak alkar-lanean doguzala gure urteroko Egutegi-Takoa. 10.000 milla ale banatzen doguz, Durango´ko Liburu-Azokan asita, Bizkai´ko errietara eta banaka batzuk Gipuzkoa´n eta Araba´n.

5.- INTERNET:

Argitaratzen dogun Egutegi-Takoa —Mensajeroak egiña-Interneten be jartzen dogu. Au egiteko Foru Aldundiko diru laguntza eukiten dogu. Dakizuenez leen BBK diru laguntzaz egiten zan baiña azkeneko urteetan Foru-Aldunditik artzen dogu laguntza.

Martin Olazarren liburuak jarri doguz aurten. Ori be Foru-Aldundiko diru laguntzaz egin dogu. Eta pentsatzen dogunez Martin berak egindako lanengatik merezi dauela CD'an be agertzea, CD bat argitaratuko dogu, baiña artikulo asko diranez, danak biltzeko denboratxo bearko dogu.

Patxadaz jartzen doguzanean banatuko dogu.

Euskerazaintzaren bitartez, Latxagaren lanak egin doguz eta CD'an grabatuta dagozanez, uste dogu gustatuko jatzuela CD bat bakoitzarentzak banatzea.

Internetera egindako bisitak, onezkero 86.000 ikusle dira

6.- IRAKASKINTZA:

Urte guztietan lez, jarraitu dogu asieratik Alkarte onen elburua izan dan Euskera irakastea. Ikasleak aspaldian ez dira gitxiagotu eta ez ugaritu be. Irakasle betikoak zintzo jarraitzen dabe.

7.- "ZER" ALDIZKARIA:

Gure "ZER" aldizkaria illero agertu da eta asko poztuten gaitu lan onek, bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarra dalako.

Argitaratzeko ez daukagu arazo aundirik, baiña zabalatzeko eta saria eskuratzeko Bilbao'n gaitz egiten jaku

kobratzaille bat aurkitzea eta errietan ezin dogulako kobrau, gitxi ordaintzen dabe BBK'ko gure kontuan.

Eskerrak irarkolako lana Foru-Aldundiak ordaintzen dauskula.

Alan da be, aurrera egiteko asmotan gagoz. Eta zuk be, euskera bizia, errikoa, maite dozunez, lagundu zeinke modu onetara:

- bazkide barrien izena emonaz.
- ZER aldizkarian atarateko lanak bialduz.
- ekonomi arloan eskua luzatuz. Eta diru biltzaleak aurkeztuz.

8.- D. MARTIN OLAZAR (G.B.):

Zorionez, argi ikusten da Euskerazale Alkarteko bazkideok benetan maite dabela euskerea ta berein beregi bizkaiera euskalkia.

Gai onetan apartekoa izan genduan oraintsu jaunak eroan deuskun D. Martin, gure Zuzendaria (G.B.).

Nor zan jakiteko, labur-labur eginda, esango neuke zutabe bitan egon zala tinkatuta: erlijio eremuan, FEDEAN eta GIZARTE esparruan, GIZATASUNEAN.

Aurrena, FEDEAN: Fededuna izanaz. Bere abadegintza da lekuko-testigu. Abade, eleiza barruan eta kalean. Batzutan abade-laguntzalle lez. Beste batzutan, Erretore-Parroko lez. Beti be, zintzoa, egizalea ta leiala. Jaungoikoarengandik artutako doaien banatzalle jatorra. Orixe adierazten dau, ON MARTIN deritxon liburuan bere bizitzako edestia aurkeztuten dauskunean.

Urrungoan, GIZATASUN arloan, D. MARTIN' i errizaletasuna dario alde guztietatik. Orra or, esaterako, Euskera-Zaintza ta Euskerazale-Akarteetan bazkide bizia lez parte artuz. Itzez ta egitez.

ZER aldizkariari dagokionez, idazkera garbi, aberats, dotore ta errikoian, jakituri andiko idazlan, sakon eta ugariak, aspertu barik, urte ta urteetan jorratu ebazan.

Aldizkariaren inguruan, ekin-tza batzuk bultzatu ta burutu ebazan. Esate baterako Urteko Batzarrak, bai eta aldikada batean amabostekoa, gaur egun illerokoa doguna.

Ba dira ekiñean ipiñi ebazenak be. Alantxik Euskal-Astea, Ipuin-Sariketa (Bilboko Udalaren laguntzaz), Urtero eguneroko orritxua dakarren egutegia, aitatu dogun ZER Aldizkaria (bizkaieraz dagon bakarra, Foru-Aldundia' ren laguntzagaz irarria —inprimitua). Web-gunekoa be onartu eban.

D. Martin'ek, elburutzat auxu euki eban: erri-euskerea (euskera bizia) ta euskalkiak (geien bat bizkaieraa) indartutea, beti be oztupo dan etxea alboratuz.

9.- ETXEA:

Ba-daukaguz arazoak etxe zarra dalako daukaguna eta "derramak" edo ordaindu-sariak aundiak diralako, baiña al dogun artean aurrera egingo dogu.

Amaitzeko, eskerrak emon bear dautsoguz Bizkaiko Foru-Aldundia'ri eta Bilbao'ko Udala'ri.

Ez gitxiago idazle, irakurle ta lankide guztiei.

Baita eskerrak be irakasle ta ikasleei zintzoak izateagaitik.

LENDAKARIA
BARROETA' tar KLAUDIO



10.- ZUZENDARITZAREN EGOKITASUNA:

2.008´ko Iraila´ren 22´an Batzar orokorra erabagi zan eta pertsona onek maikideak izateko izendatu ziran.

LENDAKARIA:

Barroeta ta Amorrortu´tar Klaudio.

LENDAKARI-ORDEA:

Egurrola ta Madariaga´tar Iñaki.

IDAZKARIA:

Atutxa eta Agirre´tar Paul.

DIRUZAIÑA:

Fernandez Ruiz de Eskide´tar Karmele.

MAIKIDEAK:

Astobiza eta Uriarte´tar Jokin.

Ormaetxea eta Uriagereka´tar Emilio.

Solozabal eta Solozabal´tar Paulin.

Uriarte eta Euba´tar Ana.

Ez zan aurkeztu inork ere Batzar-Kidetasunearako.

11 .- GALDE-ERANTZUNAK:

Egurrola´tar Iñaki´k azaldu eban bbK´ren arazoa. Eskatuta, zelan BBK´ri idatzi bear dautsogun eskutitz baten-bidez gure asarrea.

Eta eskatuko dautsegu Oleaga´tar Jabier eta Zelaya´tar Adrian´i eurek be, eskutitz bat idatzi dagiela.

Klaudio´k aldizkarian idazteko eta batzarkideak izateko eskatu eban, baiña ez zan izan erantzunik.

12 .- AMAIERA:

Klaudio lendakariak, batzarrari amaiera emoteko zutundu zan eta bertso au eskeiñi euskun:

Denbora amaitu dogu,
beteaz billera,
pozik abituz, orain,
nor-bere etxera.
Zegi dagigun baikor,
Egiñez aurrera,
oikatuz indartsu,
mundu zabalera,
gora euskerea ta
gora bizkaiera !.


Beste barik eta arratsaldeko bederatziak ta laurenak zirala, batzarra amaitutzat emon genduan.

LENDAKARIA

Barroeta ´tar Klaudio

IDAZKARIA

Atutxa ´tar Paul



Euskotarren izkuntza

Euskotarren berezko izkuntza ,ez da erdere , ez eta frantzera be.
Euren izkerea, Euskotar askok erabilten dauen euskerea, da.

Erdi Aroan “Vasconica Lingua” izenagaz ezagutu-
ten zan.

Naparroako Errege Santxo Jakintsuak Napartarren
Izkuntza zala esan eban.

Zailla da euskotarren enda nozkoa dan jakitea eta
era bardiñean euskera noiz sortu zala be.

Euskereak eztauka iñolako lotura edo antzik Europan
itz egiten dan edozein izkuntzagaz. A.Campion
Euskeralogoaren eritxian , euro-altaika ta ameri-
ketakoen artean ei datza.

Bada filologoen artean ,FRAUCA abadea adibidez,
gaurko egunez erabilten diran izkuntzen iturri ta
sorburutzat, euskera onartzen dabenak.

Parisen Antropologitzako Irakasle Andre Levefref
auxe esaten deusku: somiera,magyera ta turkoera

ba dakigu noz sartu ziran indarrez Europan, baña
EUSKERA ta euskeraz egiten dabenak, noz asi ta
kokatu ziran Sartaldeko Pirineotan Historia aurre-
tikoa da ta Antropologintza eta Etnografiarentzat
azaldu eziña.

“Izkuntzak eta Endak” deritxon liburuko VI atelean
auxe diño: “Euskerea Filologoentzat zorabioagarria
dala . RECLUSEK ,barriz, itzen eraketa ta esaldie-
tako egitura erabat bakarra dala.

Badira filólogo jakitun bat baño gehiago Esuskerea
aztertzen ibillitakoak, izkuntza antzinetakotzat
onartzen dabelako.

Gizadiaren Arri —Aroaldikoa da antziñakotasunez,
AITZ erroagaz osatutakoak diralako moztu, ebagi,
adierazten daben itz guztiak.

Agustin Arrien

Txalupetxeak Lekeition

Lekeition, errikoentzat zabalik egoten ziran tabernak, TXALUPETXE izenagaz ezagututen ziran. Alan be, itxas-ontzi bereziko arrantzaleak, aparteko mai bat eukiten eben.



Amabost kide, gitxi gora bera, batuten ziran arratsaldero, zazpirek inguruetan.

Batzutan itxas-ontzi desbardiñetako mariñelak izaten ziran.

Beste tabernatan artuemon sakona egoan, arrantzontziko partzoneurea, bertako jaubea izaten zalako.

Askari edo merienda ordurako, bakoitza bere tabernara joaten zan, tarteratxu baten eguerdiko bazkari- sobrancea eroanaz.

Azaroko lenengotik otsaillaren azkenerarte, bixigu-arrantzaldia izaten zan. Itxas-ontzi bakoitzean kuartillo-ardo bana emoten jakon, péndulo arria itsasora botaten eban arrantzaleari. Palangrea osotuten eban arria zan.

Txalupetxean egiten zan ardaoaren banaketa.

Ogeigarren mendean zear, eguneroko lana amaituta gero, bixigu errea edo xalxa gorria ta gaztañak jatera batzen ziran arrantzaleak.

Ori ezean, saiskia edo gisaue artuten eben. Orren gastue armadore ta mariñelene artean erdi banatzen zan. Itxas-ontziaren pintaketaren amaia, askari-merienda bategaz ospatuten oi zan.

Ogeigarren gizaldirarte San Martín egunez, bazkari baten bidez batzen ziran armadoreak mariñelakaz euren arteko konpromisoak ontzat emoteko. Orren ostean erabagiten zan arrantzaleek ezin ebela itxas-ontzia itxi, ez eta usabak be ontzitik iñor bialdu,

urrengo urtean Karnabaletako domekaz kotratoa amaitu arte. San Martín biaramonean, aske geldituten ziran danak. Mariñelen batek kotratoa austen baleu, ezingo leuke kontrautu barririk egin iñongo itxas-ontzirako, 40 dukat zigorpean izan ezik. Zigor bardintsua izaten zan armadoreentzako.

Bariku Santuz Lumentzara igoten eben mariñelak eta bueltan, errian, "Sol y Sombra" kopa ta foteogia dastaten eben, bakoitzari jagokon tabernan.

Bigarren Patroia, San Andres jaiegunean, arrantzalleen aldeko Meza Nausia ospatu ta ostean, bixigurik balitz, bixigu-bazkaria egiten zan.

Bixigu-arrantzaldietan, eguen eta sapatuz, partije-banaketa patrioaren tabernan burutzen zan.

Mai-gastuek (gatza, carnada, palangre-lanabesak) bein kendu ezkeroz, "Monte mayor" edo guztiena zan dirue, armadore ta mariñelen artean erdi banatzen zan. Ezer gelditzen bazan, "montoian" batu ta armadore ta mariñelentzako izaten zan.

Txalupetxeen koka lekue, Arranegi aldean arkituten zan.

Madariaga Vidal, J. Iñaki

Esker onez: Arrizabalaga

Atxabal Correa, Ioseba.

Manuel Urizar, Luis.

* Claudio Barroetak euskeratua.


Txalupetxeak Lekeition

Taberna	Dirección	Nombre del pesquero	Taberna	Dirección	Nombre del pesquero
Jacinto	Ezpeleta nº 29	Ntra. Sra. del Socorro Ave María Amoroto (Jesús Nazareno) San Luis Gonzaga Isla San Nicolás	Damiana	Ezpeleta nº 25	Ntra. Sra. del Pilar
Dominga	Ezpeleta nº 29	Santa Rita (tipo único) Estrella del Cielo Monte Kalamua Marian Villa de Lequeitio	Ventura (Arrakera)	Ezpeleta nº 15	Aita Guria Mendizarra
Guerniquesa	Ezpeleta nº 27	Santa Elena 1 Santa Elena 2 Santa Elena 3	Kai-Gane	Ezpeleta nº 14	Begoñako Ama Madre de Dios
			Alcibar	Narea nº 13	San Antolín Mendi Zorrotza
			Raskayu	Ezpeleta nº 4 (Txatxo Kaia)	Monte Lumentza Inmaculada San Ignacio



Txalupetxeak Lekeition

Taberna	Dirección	Nombre del pesquero	Taberna	Dirección	Nombre del pesquero
Severiano	Arranegi nº 3	Miren Begoña Bi Anaiak Kalamua Bizi bedi Jesús Aita Guria	Bombillón	Dendari nº 9	San Felcísimo Santa Fé
Metro	Monseñor Azpiri nº 2	Ave María	Mantxua	Beascocalea nº 24	Juliana
Bocho	Arranegi nº 7	San Antonio Juliana	Sixto Bengoetxea	Ezpeleta nº 24	San Antonio (Txatxo Kaia)
Prim	Arranegi nº 28 (Txatxo Kaia)	Ntra. Sra. de Arrate Monte Hermoso Magdalena María Jesús Ama Mariana Ama Antoñita	Kai Gane II	Arranegi nº 12	Antiguako Ama (vapor)
Santos Mendixa	Arranegi nº 26 (Txatxo Kaia)	San José (caldera) Valentín Berrio-Ochoa Jesusen Biotza San José(motor)Dorotea	Careaga	Trinidad nº 17	Zeruko Izarra
Santi	Monseñor Azpiri nº 4	Ntra. Sra. del Socorro	Juan Pedro Laucirica	Colmenares nº 2	San Antolín San Pedro B Mendi Zorrotza Ntra. Sra. de Aranzazu Ntra. Sra. del Pilar
Ikutza	Trinidad nº 5	Juan Ramón Goizeko Izarra San Cristóbal	Jesús Murelaga	Narea nº 11	Carmen Ludiko Atsegina
Nicolás	Apalloa nº 8	Monte Otoio Faro Sta. Catalina María Milagrosa	Eduvigis Echevarria	Atxabal nº 5	Benedicta Iru Aitzak
Barbarena	Apalloa nº 18	Santa María Goretti Ntra. Sra. del Rosario Amandarri Agurtza	Nicolás Estébanez	Atxabal nº 8	Mari Cruz
Larrica	Bergara nº 3	Monte Otoio	Gallo	Igualdegi nº 2	Estrella del Cielo
Egaña (antiguo)	Avda. Sta. Catalina nº 1	Bizi Bedi Jesús Luciana Clotilde	Justa Iriarte	Arranegi nº 12	San Antonio San Roque
Roca	Bergara nº 3	Rosario (vapor) Madre de la Antigua Playa de Carraspio Gorbea Mendi	María Mendieta	Arranegi nº 6 (Txatxo Kaia)	María Milagrosa Zeruko Izarra
Victor	Bergara nº 4	Viva Cristo Rey Gorbea Mendi Ama Kukita	Mateo Urrosolo	Arranegi nº 4 (Txatxo Kaia)	San José Glorioso Lau Anaiak Jesusen Biotza San Antolín Urrosolo-Urigüen Urrosolo
José Madrileño	Bergara nº 23	Ntra. Sra. del Pilar	José Etxaburu	Ezpeleta nº 16	José Juana
			Cruz Belaustegi	Ezpeleta nº 18 (Txatxo Kaia)	Mari Cruz
			Valentín Urizar	Ezpeleta nº 26	Berbis (Txatxo Kaia)
			Alberto López	Monseñor Azpiri nº 1	Zenarruza Playa de Isuntza
			Zeruko Taberna	Eusebio Erkiaga nº 1	Paloma Divina



Ventura (Arrakera) Ezpeleta nº 15



Euskalerria`ren Egia:

VI jakintza ta izkuntzak

(V).- *Lenguas que no fueron de cultura como EL VASCO, hacen desesperados esfuerzos por querer serlo y bastarse a si mismas y ser lenguas hegemónicas:*

Esan guzti au, bost zatitan bananduko dogu, baktza beren guzurtabidea eroan dagian.

a).- *“Lenguas que no fueron de cultura como EL VASCO”.*

b).- *“Hacen desesperados esfuerzos por querer serlo”.*

d).- *“Bastarse a si mismas”.*

e).- *“Lenguas hegemónicas”.*

f).- *“Lengua Madre y Nación”.*

Orrelango baiezko itz-gaiztorik, ez eban sekula esan bear alango jakituri aundiko gizon batek eta Pidal`ek gitxiago, jakitun aundia izan zalako.

Egia da, bera 1.968`an il zanetik ona, edestiaren azteraldi-lanezko aurrerakun- tzan, zeaztasun asko argitaratu egin dirala, baiña aurrerakuntza orreik, berari ez dautso aitzakirik emoten esan orreik azaltzeko, Euskerea`ren gora-beran asko jakin ebalako.

Euskerea`ren edesti gora-beran gaur asko dakigu, azter-lan ondokoi (de mucho fondo) edo zorrotzak egin diralako.

Orregaitik dakigu gaur, Homo-Sapiens, Kromañoi edo Euskaldunen iru itz auen xeetasunezko adi-mugan (definición), Euskal izatasunarena dala, egin diran sakonezko azter-lan orreik argi azaltzen dabena.

“LENGUAS QUE NUNCA FUERON DE CULTURA COMO EL VASCO”:

“JAKINTZA”: Gizon-emakumeak edo eta erri-gizarteak, alkar-ulertzaren bizitzarako bear dauan arlo guztietako ezaguntzari esan edo adierazpen-tzen jako.

Adibidez: Gizon/emakume edo Erri-gizarteak euren oardunezko aztura bidean eta euren artean berbaz ulertzeko lortu eben IZKUNTZA, EIZARAKO bear ebezan TRESNERIA, OSASUNERAKO bear ebezan BELAR-EZAGUNTZA`ri, ERLIJOAN, euren arteko JENDEKOITASUNEAN (sociabilidad) ARDURAZ`ko-ORDEZKOTZA`n LOTSA`ri, NEKAZARITZA`n, LANGINTZA`ren TREBETASUNEAN eta abar asko.

Eta jakintza`ren arlo guzti orrerik xeetasunaren bakantasunean aztertuta eta erinduaren maillan zelango obekuntza artu daben ikusita, gizon-emakume ta erriak, JAKINTZA`ren neurri-maillan erroldatu (catalogar) edo maillazko-iritzian (calificación) ezartzen dabez.

JAKINTZA itza`ren esangura adi-mugatuta zer dan jakin-da eta azkeneko izotz-ostetik Europa`ren lenengo gizakiak Homo-Sapiens eta Kromaño, Euskaldunak zirala jakin eta milla urte askotan leenengo euki eben izkuntza Euskerea zala..... Pidal`ek, zergaitik esan eban !! EUSKEREAA ez zala jakintzazko izkuntza..., Homo-Sapiens Afrika`tik zabaltzen asi zanetik eta gero milla urte askotan..., Europa ta Asia guztia Euskereagaz lur guzti oneik erritu ba-ebezan?.

Paris`en, ez dago ba... ondo erroldatutako lauki baten, Europa ta Asia`n ezagutzen diran izkuntz guztien izendegia, Euskerea danetatik zarrena dana eta beren sorburua ezakizun-lez (incognita) irarrita?.

Argi dago, Pidal`ek menperatzailetasunaren JENDEKUNTZAN berba egiten dauala. JAINKOA`k bereztasun oneri ipini eutsozan legea`ak ez ebalako kontuan artzen, aberetasunezko sasijainkoaren okerkerienak baiño, bere maisutasunaren jakintza guztiagaz, Mundu onen gizakia`ri amiltze-girako bideak landu ta erreztuta.

1.957`ko inguruetan..., Frako`k, menperatzailletasuna ezarri eta beren garaipena betirako izan balitz-bezela..., agindu eutsolako ?.

“Hacen desesperados esfuerzos por querer serlo”:

Bereztasundutako Mundu oneri, Erri-gizarteak euren jakin-egarritasunezko aztura bidean eta gaitasun oneri ulermenduzko adierazpen bat emon naian, azter-lan orreitan lortu eben izkuntzaren izena artzen eben eta alan ezagutzen ziran erri-gizarte guztien artean, bakoi-tzak beren Nortasunezko bereizkuntza artzen ebalako.

Orregaitik, ez da Pidal`ek esaten dauan antzera: “Euskaldunak alegiñik aundienak egiten doguzela, Euskaldun izan-gurean”.

Gure bizitzaren ulermeneko Nortasun zentzu ta izaerak ezereztu egiten diralako baizik !! Danok daukagun giza-bereiztasunetik erri-gizartearen bereiztasunean NOR izatera eldu giñalako. Eta Nortasunaren berezko ardura dalako, ezereztasun ori... nor-beren gorputzaren ilketa-lez izango litzakelako.

Geiago, LEGE`aren egarri bizi onetan beartuta....., nor-beren ardurak bastartu !!.. bestien ardurapean bizitzeko ?. Zelako bizitza izango zan ori ?.

JAINKOA`k Mundu onetara, askatasun osoz !! arteko ordezkotzaren ardurapean bereztu egin gaitu eta orregaitik menperatzaileak sekula ez dabe irabaziko, BEREN BORONDATE on-ori gure ARIMETAN irarrita (impreso) ekarten dogulako.

Mundu onetan gizarteko-eskubideak izanda nagusi...., sasijainkotasun eritzi orregaitik beti borrokan ibili bear ote-gara ba?.



San Millan

“Bastarse asi mismas”:

Maltzurrezko esaera onek alan esanda, arrazoi gabekoa dalako, ez dau bear itzaldi luzerik, bizitz-oneitan gizon-emakume edo erriak diranak: “IZAERA`ren ZENTZUA ARRAZOIZ ERAKUTSI edo eta AGIRIAN-ITZI BEAR DABELAKO”. Eta JAINKOA`ri begira, bizi au “ORDEZKO-ARDURAN” egin bear dan gauza bakarra dalako, danon bakeak lortu gura ba-dira.

“Como las grandes culturas hegemónicas lo hacen:

Pidal`ek gura-nai ez, “EUSKERA”, “NAGUSITASUNEZKO IZKUNTZ BAKARRA IZAN ZAN MILLA-URTE ASKOTAN”

Zer dira..., edo zelan erabiltzen dira “NAGUSITASUNEZKO JAKINTZA” orreik ?.

Asieratik, menperatzailetasuna jakintzan-be garaipentzen zanean eta egoan jendekuntza euren ardurapean artuta, erri-gizarteak arazoizkoak zirala artu dagien, menperatzaile barriak sortuta..., jendekuntza orreik jakintza nai-ta erritarren artean zabalduz joan, JAINKOA`ren eskubideko bakarrak izan ba-ziran lez, sasi-jainkotasunean..., euren artean ibiltari ?.

Griego`ak, Asia ta Ejipto`ko jakintzaren jendekuntz orreik batuta, lortu eben, eraman-oneko (filosofia) eta demokrazizko bereztasunezko-jakintza biribiltasunean erindu ta inguratzea.

Baiña..., zereginzan Erromatarrengatik asi-ta aurrerantzean ?.

Orañarte, zer !! egin dabe menperatzaileak “Nausitasunezko Jakintza” orreik euren ardurapean artuta ?.

Eurak-be JAINKOA`ri begira, Mundu onetako gizartearen urbiltasunezko alkartasunean dalako garaipena igarri dabela-ta..., Bereztasunaren LEGEA`k kontuan artu gabe eta sasijainkotasunezko ordezkotza euren eskuetan artu naian, dirua, merkataritza eta bizitzeko bear doguzan mozkin guztiak euren kontrolpeko agintaritzan euki, guda-indarrakaz..., gura nai-ez edo morroi-lez sasi-agindu orreitara batzangotuta egon gaitezcan ?.

Orreri esaten dautsoe....: “ JENDEKUNTZAZKO (civilizaciones) JAKINTZAREN (las culturas) NAGUSITASUNA (hegemónicas) ?.

Gure Bereztasun au, Izadi onek daukan gai guztiagaz, “BEREIZTASUNA`ren ordezkotza-ardurapean LEGEZ-OIÑARRITUTA” dagoalako, eurak zainduta iraun bear dogu aurrerantza, BERA dalako LEGE-BAKARRA. Eta guk egiten doguzan legeak Beragandik bereztutako legeak izan bear diralako, Mundu oneitan IÑOR ez dalako NOR !! beren gogotik atarateko iñungo legerik. Mundu fisiko oneitan alan egin ezker, bestea gabetasunean geratzen dalako.


Lengua Madre y Nación:

“Ama`ren izkuntza”:

Belaunetz, ama ta aitaren maitasunezko irakaspenetik ikasten dogun izkuntza eta beraz artzen dogun giza-bereiztasun ta Nortasunai esaten dautsagu “AMA`ren IZKUNTZA”.

“Erria”:

Eta Erria, Euskalerrria-lez, zabaltasunezko lurraldeetan kokatuta dagozan leiñuak: “Izkuntza”, “Erlijio”, “Ekanduan” eta euren arteko “JENDEKOITASUNEAN” oitura bardiñekoak diranai.



Baiña zer sortzen da, Europa, Asia ta Afrikan-lez Erromatar aberekoiko lakoak agertu ezker leiñuzko erri orreik menperatzeko alegiñean etorrita eta euren izkuntza ezarri gurean berezko errikoikiak naastuz erderazko latin-kume izkera-baragarriak sortzen diranean ?.

Orduko Euskalerrriaren biotzean bizi zirani bezela, ezer ez, euki eben sinismeneko indarragaz oster be, bereala berrezkuratu ebezalako izkuntzaren eta beren oiturazko demokraziaren Nortasunak.

Baiña biotz orren kanpotik egon ziranai, erromatarren ostetik Godo`ak etorrita euren asmo bardiñakin..., dana !!.

Mauritarrakezereztuten joanziranetik, Erromatar katolikotasunaren kaizertzazko asmo-iritziaren sasi-agindu-nai zaleak menperatzailetasunezko ari orrei oster-a-be oratu eutseelako.

Agindu-zale erdira-nai orreik edestian zear, sekula ez eben lortu batzangotasunezko garaipenik, nai-ta maltzurkerizko guda-indarrez edesti guzti au, odolkerizko zarraskietan ibili, areik eta guda-indar geiegian, 1.789`an Frantzia`ko iraultetaren bitartez Europa`n gaur daukaguzan Espaiñol, Frantzes, Aleman eta abar Laterri-menperatzaileak ezarri.

Eta..., laterri orreik nun !! AMA`ren izkuntza eta NORTASUNAK ?.

Europa guztiaren batzangotasuna ezin ebelako lortu, lurralde aundietan banandu eben. Baiña..., nungo NAZIO edo ABERRI-BARRI`ak dira ?.

Asmatutako Espaiña`ren izkuntza, gaztelera izatea gure dabe. Baiña nungo amaren tititik xurgatu dabe esnea..., gure AMA indartsu, bizirik ta esnetsu badago ?.

Iñork ez dakien zer eta zertarako dan bulerretik ?.

Zer da Espaiñ ori..., eurak gu gaztelerratuak izatea gure ba-dabe ?.

Egia da, menperatzailetasunezko-sare orreit-tan jausita sinistu egiten dabenak, belaunez alan beartu egin dabezelako eta Gaztelera AMA-ORDE lez artuta daukielako, beragandik titia edaten daben ezkerro, eskubidea daukiela izkuntz ta Nortasan barri orreit-tan bizitzeko, asiera or berritzen jakielako. Baiña..., besteak ?.

Konturatzen dira zer egiten daben..., aurrera begira alango aurretikoak (precedentes) legez ezarri ezkerro ?.

Gaur, menperatzaile daukaguzan laterri oneik,

maltzurak dira, JAINKOA`ren agindu aurrean, bizitz-au BEREN LEGE`zko bereztasunetik kanpo gure dabelako zuzendu eta bide okerragorik ezin leike artu !!.


Gaurko sozialistak, Mundu`ko Uritarrak (ciudadanos) garela lotsarik-gabe esaten dabe. Eta NEURRIAK ?.

Dana dala, umeak euren aurtxotasunean-be, ez eben esango ain-oarkabeko berba`rik.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.008`an JORRAILLA`ren 5`ean





Bizkaia'ko arkeologia.

Gure antxiñako gauzak ikastea, guztion guraria da, baiña orretarako bide egokiak artu bear doguz.

Eun urte dira Bizkaia'k billaketa au asi eballa. Astiro egin da lana baiña beti aurrera, gudak eta diru-urritasunak eragozpen izan arren.

Deustu'ko Ikastetxe Nagusian letren saillea ezartea be laguntza izan da, Aldundiaren diru-leguntzagaz batera. Ba-daukaguz gaur arkeologo gazteak eurak ikasi eta urrengoai irakasteko.

Bizkaia aberatsa da arlo onetan, bai edesti-aurreko gaitan eta bai arri-zar aroketan naiz erdi-arri sasoikoetan.

Konturatu gaitez an eta ikasi zelako aberastasunak daukaguz an.

1.-EDESTI –AURREAN.

Antxiñako aldi areitara eltzeko, oraintsuagoko gauzetatik asi bear gara: Zer aztertuta daukagun ikusi, orretarako liburutegiak eta museoak ikertu bear dira, eta jakingarri geiago bear danean, billaketa asi, billatokiak (yacimientos) aztertu.

Zer da billatokia edo “yacimiento”?

Antxiña'ko gizakien ondakiñak dagozan lekua. Batzuk lur-gaiñean dagoz, agirian, beste batzuk leiza edo kobetan naiz berezko toki luzeetan (oneik urak egiñak dira.) eta milloiak urteak daukez. Sasoi baten olako lekuetan bizi izan zan gizakia eta onen ondakiñak, beetik gora, maillaka pillatuta daukaguz, zarrenak azpian eta barriagoak gaiñean. Or dago arkeologoak euren lana egiteko lekua.

2.-BILLABIDEA EDO METODOA.

Aurkitutako gai guztiak kontuz aztertu bear dira eta ori talde baten lana izaten da. Lenengo aldi aretan zelan bizi ziran jakin bear da. Liburu baten antzekoa da billatokia, baiña lenengo irakurketa berezia eta bakarra izaten da. Or zeozer betiko apurtuta geratzen da. Ondo egin ba' da , salbau da eta txarto egin ba' da betiko galdu da..

Ez da ba elburua gauza asko aurkitzea, orduko biziarean ondo agertzea baiño. Ez dira billalekuak apurtu bear zentzun bagerik (leizak, dolmenak, menhir'ak kromletx'ak) asko-asko be ez dira-ta.

3.-ZER EGIN DAN ORAIN-ARTE.

XIX gizaldiaren erdi-inguruan asi zan lan au.1866n urtean Dima'ko Baltzola aztertu zan. 1 900n. urtean Lemoa'ko Atxunbieta, 1 911n. urtean araudi bat egin zan olako billaketak egiteko.

T.Arantzadi, J.M.Barandiaran erta E.Eguren dira lenengo billatzaille aundiak. Santimamiñe aztertu eben eta 1916n. urtetik ezagunak ziran ango marrazki ospetsuak. Baita Lekeitio'ko Lumentxa eta Karrantza'ko Laperra be arakatu ziran eta Zeanuri'n Errekatueta'ko dolmena aurkitu zan. Lan ederra egin eben aldi laburrean!

Laster aurkitu ziran beste leiza batzuk: Mañaria'n, Abadeño'n, Berriatua'n eta dolmenak Markiña'ko Olaburu'ko Diruzulo'n.

4.-GUDA ETA ALDI TXARRA.

Guda-ostean Barandiaran urte askotarako erbesteratu eben eta aldi orretan 50 000 urte-inguruko billaketak egin ziran.

Berrogeigarren urte-inguruan Aldundiak billaketa au ugaritzeko bidea artu eban eta Nabarniz'ko Arrolamendi eta Foru'ko Ginerredi'n asi ziran billaketak egiten eta erromatarren aldiko gauzak be aurkitu ebezan, baiña ez dira ondo katalogatu eta balio bagerik geratu dira.

Baranduaran erbestetik etorri zanean, indar barria artu eben billaketa-lanak: Sagastigorri (Kortezubi'n) eta Axlor (Dima'n) arakatu ziran.

60 urte oneitan Jose Maria Apellaniz'en lana agiri da, bakarrik naiz lagunakaz:Arenaza II (Galdames'en), Aldeakueba (Karrantza'n) Kobeaga (Izpaster'en), Gelaleuta (Igorre'n) Gerrandujo (Ibarrangelu'n) Kuestalabieja ta Las Pajucas (Lanestosa'n) eta Dolmenak eta kromletxak ugari.

5.-DEUSTU'KO IKASTETXE NAGUSIAN ARKEOLOJI-MINTEGIA.

Arenaza I eta Arenaza II landu ebazan ondo Deustu'ko Irakasle zan Apellaniz'ek eta 1973n. urtean 11 000 urte daukezan irudiak agertu ziran.

Aspaldion billaleku asko zapuztu dira. Orregaitik dakargu emen zer egin bear dan:

1º.-Inguruko lurra zelan eratuta dagoan ikusi: giroa, euriak,bizi-leku lez...

2n.-Ondo aztertu eta dana idatzi. Argazkiak eta marrazkiak lagun dirala.

3n.-Lora-eutsen azterketea egin, palinologoak lagun dirala.

4n.-Pizti-azurrak aztertuko dauz paleontologoak:Eizatutako piztiak, onein adiña,noizkoak diran...

5n.-Giza-ondakiñak aztertuko dauz antropologoak:zelakoak ziran, gaisoak, zenbat urte bizi ziran...

6n.-Karbono 14'k lagunduko dau bizidunak aztertzen,50 000

urtetik berakoentzat. Zarragoentzat beste bide batzuk dagoz.



6.-AZTERTU BAGEKO BILLA-LEKUAK

Billaketa txikiak egin eta toki batzuk artu egiten dira, beste batzuk ez. Kobetan Kokobrea ta Lagalan artu dira (Truzios'en) Eguzkiola (Zeanuri'n) Kobazar (Mañari'n) Armotxe ta Antolina (Arteaga'n) Elesu (Ereño'n) Kortazulo (Murelaga'n) Otoio (Ispazter'en)Kobaua (Markiña'n) Pepetxo (Amoroto'n).

Agirian, artzain-aldikoak dagoz:Aitzko Balgerri, Armañon, Alen, Arbaliza, Eretza, Serantes, Ganekogorta,Artxanda,Muñarrikolanda, Jata, Gorbeia, Urkiola, Kalamua, Añes.

Gutziz oneitan agertu dira 38 dolmen,5 kromletx, menhir bi

eta illobi asko.

Ori da gure edes zarra jakiteko bide bakarra eta or daukagu gure edesti osoaren %97'a eta asi baiño ez gara egin. Ez dogu ezer apurtu edo galdu bear, dana aztertu bear dabe egiten dakienak.


OLAZAR'tar Martin'ek

Euskaldun barrientzat

Ikkasten



Zazpi erruak



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:
 'tar
 kalean (auzoan) zenbakian
 errian, errialdean (probintzian)
 Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,
 an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

GERNIKAKO ARBOLA
DA BEDEINKATUA
EUSKALDUNEN ARTEAN
GUZTIZ MAITATUA
EMAN DA ZABAL ZAZU
MUNDUAN FRUTUA
ADORATZEN ZAITUGU
ARBOLA SANTUA

MILLA URTE INGURU DA
ESATEN DUTELA
JAINKOAN JARRI ZUELA
GERNIKAKO ARBOLA.
ZAUDE BADA ZUTIKAN
ORAIN DA DENBORA
ERORITZEN BAZERA
ARRAS GALDU GERA

EUSKERAZALEAK

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO